ENPLEGUAREN ETA PRESTAKUNTZAREN ARLOKO PROGRAMA MISTOEN BIDEZ, GIZARTE INKLUSIOA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIAK DUEN GAZTEEI LAGUNTZA EMATEKO PROGRAMAN SARTUTAKO GAZTEENTZAT IBILBIDE INTEGRALAK ETA PERTSONALIZATUAK MARTXAN JARTZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRIAK ETA DEIALDIA ARAUTZEKO FORU-DEKRETUAREN PROIEKTUAREN AURRERAPENARI DAGOKION AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOAREN IZAPIDEA.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren helburua da Bizkaiko gizartean berdintasuna, elkartasuna, gizarte-kohesioa eta enplegua bultzatzeko politika publikoak sortu eta sustatzea, eta, horretarako, zerbitzuak ematen dizkie egoera pertsonalaren, sozialaren edo familia-egoeraren ondorioz bizimodu duin eta betea garatzeko zailtasunak dituzten pertsonei. Zeregin horretan, arreta berezia jartzen du tratu txarren biktima diren emakumeen kolektiboan eta gizarte-bazterketako egoeran edo egoera horretan geratzeko arriskuan dauden pertsonen kolektiboan. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, orobat, enplegua eta herritarren lan-gaitasunak sustatzen ditu, eta giza garapen iraunkorra bultzatzen, generoaren, dibertsitatearen kudeaketaren eta lankidetza zein garapenaren arloko politiken bidez.

a.- Arauketa berriaren bidez konpondu nahi den arazoa, eta helburua.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak funtsezko helburu bat du enpleguaren arloan, hain zuzen, LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONAK LAN ERATU DAITEZEN LORTZEA. Horretarako, enplegagarritasuna sustatzeko jarduketa-ildo

TRAMITE DE CONSULTA PÚBLICA PREVIA DEL AVANCE DEL PROYECTO DE DECRETO FORAL REGULADOR DE LAS BASES Y CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA PUESTA EN MARCHA DE ITINERARIOS INTEGRALES Y PERSONALIZADOS, A TRAVÉS DE PROGRAMAS MIXTOS DE EMPLEO-FORMACIÓN, DIRIGIDOS A JÓVENES INTEGRANTES DEL PROGRAMA DE ATENCIÓN A PERSONAS JÓVENES DE LA DIRECCIÓN GENERAL DE INCLUSIÓN SOCIAL.

El Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad tiene como misión la generación e impulso de políticas públicas favorecedoras de la igualdad, la solidaridad, la cohesión social y el empleo en la sociedad de Bizkaia, mediante la prestación de servicios a aquellos ciudadanos y ciudadanas que, a causa de su situación personal, social o familiar, tengan dificultades para desarrollar una vida digna y plena, centrando el foco de su atención en el colectivo de mujeres víctimas de maltrato, en el de las personas en riesgo o situación de exclusión social, el impulso y la promoción del empleo y las competencias laborales de la ciudadanía, así como en la promoción del desarrollo humano sostenible, diseñando políticas de género, de gestión de la diversidad y de cooperación y desarrollo.

a.- Problema que se pretende solucionar con la nueva regulación y su finalidad.

El objetivo prioritario del Departamento de Empleo, Inclusión social e Igualdad en materia de empleo, es LOGRAR LA INSERCIÓN LABORAL DE LAS PERSONAS EN SITUACIÓN DE DESEMPLEO, y para ello tiene establecidas diferentes líneas de

batzuk ezarrita dauzka gazteentzat, laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonentzat (Lan Berri) eta laneratzea batzuetan enpresaburu autonomoaren edo enpresa txiki kolektiboaren formulak —autoenpleguaren sustapenari lotuak— erabiliz errazagoa eta egingarriagoa (besteren konturako laneratzea baino) duten pertsonentzat.

actuación de promoción de la empleabilidad, dirigidas a las personas jóvenes, a las personas con especiales dificultades de inserción Lan Berri, o a las personas para las cuales la inserción es, en algunos casos, más factible y sostenible si se hace mediante fórmulas de empresariado autónomo o de pequeña empresa colectiva, que si se pretende recurrir a la inserción por cuenta ajena, mediante el fomento del autoempleo.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak jarduketa berriak gehitu nahi dizkie jarduketa-ildo horiei, ibilbide integral eta pertsonalizatuak garatzen dituzten programak martxan jartzeko, enpleguaren eta prestakuntzaren arloko programa mistoen bidez. Bi helburu dituzte programa horiek:

1) Langabetuei enpresen benetako beharrizanei buruzko orientazioa eta prestakuntza eskaintzea.
2) Langabetuen laneratzea sustatzea esperientzia profesionalaren bidez.

A estas líneas de actuación, el Departamento de Empleo, Inclusión social e Igualdad quiere sumar nuevas actuaciones centradas en la puesta en marcha de programas que desarrollen itinerarios integrales y personalizados a través de programas mixtos de empleo-formación que aborden dos objetivos:

1) Orientar y formar a las personas desempleadas en las necesidades reales de las empresas.
2) Favorecer la inserción laboral de las personas desempleadas a través de la experiencia profesional.

Babes-sistema uzten duten gazteen egoeraren ezaugarria hau da: batetik, gazte guztiek dituzten arazo berak bizi dituzte, baina, bestetik, arazo horiek bereziki areagotzen dira gazte horien historiagatik eta baliabiderik ez izateagatik.

La situación de las personas jóvenes que abandonan el sistema de protección se caracteriza por la vivencia de una serie de problemáticas comunes con la juventud general, por una parte, pero se ven especialmente agravadas por su historia y la falta de recursos.

Horren ondorioz, laguntza integralak eta pertsonalizatuak behar dituzte lan-munduan hasteko. Gazteak edozein gizarteren kapital preziatuena dira, eta haien laneratzea sustatzea tresna garrantzitsua da etorkizunean gizarte-bazterkeriari aurre egiteko.

Esto hace que requieran de apoyos integrales y personalizados para su tránsito a la vida laboral. Las personas jóvenes son el capital más valioso de una sociedad y favorecer su inserción laboral supone una herramienta para combatir la exclusión social en el futuro.

Dekretu-proiektuaren xedea da Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak duen gazteei laguntza emateko programan

El proyecto de Decreto pretende dar un impulso y promover la empleabilidad de las personas jóvenes integradas en el programa

sartutako gazteen enplegagarritasuna sustatzea eta bultzatzea.

b.- Testu arauemaile hau onartzeko beharra eta egokiera.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, gazteen heltze-prozesuaren eta bazterkeria prebenitzeko prozesuaren jarraipena eta koordinazioa egiten du, bai haurrak eta nerabeak babesteko sistematik datozen gazteen kasuan, bai, gizarte-bazterketaren ebaluazioaren ondorioz, zuzendaritza horren mendeko Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuan daudenen kasuan.

Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak 18 eta 23 urte bitarteko gazteekin esku hartzeko estrategia bat diseinatu du, eta programan sartzeko bi bide daude: gizarte-bazterketaren ebaluazioa eta diagnostiko espezializatua eginda edo Umeen Zerbitzuak bideratuta. Esku hartzeko programa hori Gizarte-inklusioaren arloan esku hartzeko prozedura espezializatua arautzen duen maiatzaren 21eko 59/2019 Foru Dekretuaren IV. tituluan dago araututa.

Esku-hartze sozialari lotuta dauden zerbitzu propioez gainera –59/2019 Foru Dekretuan daude araututa–, gazteekin esku hartzeko estrategiaren barruan enplegagarritasuna garatzeko ildo berezi bat jaso da, zeina Enplegua Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiarekin batera gauzatzekoa den.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 45. artikuluak ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan gizarte-zerbitzuen inguruko eskumenak dituzten organoek eta beste sistema eta politika publiko batzuetako zerbitzuak eskaintzeko eskumena duten

de atención a personas jóvenes de la dirección general de inclusión social.

b.- Necesidad y oportunidad de aprobar el texto normativo.

La Diputación Foral de Bizkaia, a través de la Dirección General de Inclusión Social, del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, realiza el seguimiento y coordinación de los procesos de maduración y prevención de la exclusión de personas jóvenes, tanto de aquéllas provenientes del sistema de protección a la infancia y la adolescencia, como de las que acceden al Servicio para la Inclusión, dependiente de la citada Dirección, a través de la preceptiva valoración de la situación de exclusión social.

La dirección general de inclusión social ha diseñado una estrategia de intervención con personas jóvenes de entre 18 y 23, que acceden al programa mediante valoración de la exclusión social y diagnóstico especializado o mediante derivación desde el servicio de infancia, regulada en el Título IV del Decreto Foral 59/2019, de 21 de mayo, de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se regula el procedimiento de intervención especializado en materia de inclusión social.

Además de los servicios propios vinculados a la intervención social y regulados en el Decreto Foral 59/2019, la estrategia de intervención con personas jóvenes prevé una línea específica de desarrollo de la empleabilidad a ejecutar en colaboración con la dirección general de empleo.

El artículo 45 de la Ley 12/2008 de 5 de diciembre de Servicios Sociales establece que los órganos de las administraciones públicas vascas competentes en materia de servicios sociales deberán coordinar sus actuaciones, con las de los órganos competentes para la prestación de los servicios que corresponden

organoek koordinaturik jardun beharko dutela. Sistema eta politika horiek direla-eta, batez ere honako hauek hartuko dira kontuan: osasun-sistema, hezkuntzakoa, judiziala, enplegu-politikak, lanbideratze- eta prestakuntza-politikak, etxebizitzakoak, irisgarritasunekoak, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzekoak, berdintasunekoak, eta, orokorrean, esku-hartze sozialeko arlo jakin batzuetan gizarte-zerbitzuekin batera izan daitekeen beste edozein politika publiko.

Hori dela eta, komenigarritzat jo da foru-dekretu baten bidez arautzea, enpleguaren eta prestakuntzaren arloko programa mistoen bidez, Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak duen gazteei laguntza emateko programan sartutako 18 eta 23 urte bitarteko gazteentzat ibilbide integralak eta pertsonalizatuak martxan jartzeko jardun-lerro espezifiko bat.

c.- Arauaren xedea.

Araudiaren xedea da, enpleguaren eta prestakuntzaren arloko programa mistoen bidez, Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak duen gazteei laguntza emateko programan sartutako gazteentzat ibilbide integralak eta pertsonalizatuak martxan jartzeko dirulaguntzen oinarriak ezartzea eta dirulaguntza horien deialdia egitea 2020ko ekitaldirako.

Enpleguaren eta prestakuntzaren arloko programak elementu hauek izango ditu: laguntza eta orientazio integralak; oinarrizko prestakuntza, zeharkakoa eta teknikoa; esperientzia profesionala.

d.- Planteatutako arazoa konpontzeko egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak)

Enplegagarritasuna sustatzeko neurriak bideratzeko dirulaguntzak erabiltzea ohiko

a otros sistemas y políticas públicas, en particular con el sistema de salud, con el sistema educativo, con el sistema judicial, con las políticas de empleo, inserción laboral y formación, vivienda, accesibilidad, garantía de ingresos e inclusión social, e igualdad, y, en general, con cualesquiera otras políticas públicas que pudieran confluir con los servicios sociales en áreas concretas de la intervención social.

Por ello se considera conveniente articular mediante Decreto Foral una línea de actuación específica que ponga en marcha itinerarios integrales y personalizados, a través de programas mixtos de empleo-formación, dirigidos a las personas jóvenes de entre 18 y 23 años integradas en el programa de atención a personas jóvenes de la dirección general de inclusión social.

c.- Objeto de la norma.

El objeto de la normativa será establecer las bases y convocatoria de subvenciones para puesta en marcha de itinerarios integrales y personalizados, a través de programas mixtos de empleo-formación, dirigidos a jóvenes integrantes del programa de atención a personas jóvenes de la Dirección General de Inclusión Social del ejercicio 2020.

Se realizará un programa de empleo-formación que constará de: Acompañamiento y orientación integral; formación básica, transversal y técnica; y Experiencia profesional.

d.- Existencia de soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias al problema planteado.

La puesta en marcha de medidas de fomento de la empleabilidad mediante subvenciones

prozedura da administrazio publikoetan.

es un instrumento comúnmente utilizado por las administraciones públicas.

Ildo horretan, Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak duen gazteei laguntza emateko programan sartutako gazteen enplegagarritasuna sustatzeko dirulaguntzen programa enplegagarritasuna sustatzeko tresnen artean leku zehatza duen programa bat da.

En este contexto el programa de subvenciones para la promoción de la empleabilidad de las personas jóvenes integradas en el programa de atención a personas jóvenes de la dirección general de inclusión social, se plantea como un programa que ocupa un nicho concreto entre los instrumentos de promoción de la empleabilidad.

e.- Arau-proposamenak ukitutako xede-taldeak, zeinei zuzendu behar zaien.

e.- Públicos objetivos afectados por la propuesta normativa y a quienes se debe dirigir.

Foru-dekretu hau irabazi-asmorik gabeko Bizkaiko elkarte, fundazio eta bestelako erakundeentzat da, betiere egiaztatzen badute gutxienez ere hiru urteko esperientzia dutela bazterkeria egoeran dauden gazteak laneratzeko programetan. Gazte horiek inklusioa sustatzeko dauden foru-zerbitzuen mendeko zerbitzu, zentro eta programetatik, udalen oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik edo EAEko beste gizarte-zerbitzuetatik etorritakoak izan behar dute. Horrez gainera, erakunde horiek egiaztatu behar dute esperientzia dutela Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren gazteentzako estrategiaren inplementazioan, baita enpleguaren eta prestakuntzaren arloko programa mistoetan edo Europako Gizarte Funtsaren programa operatiboko laneratze-ibilbideetan ere.

Las entidades a las que va dirigida la normativa son Asociaciones, Fundaciones y Otras entidades sin ánimo de lucro de Bizkaia que acrediten una experiencia mínima contrastada de tres años en programas de inserción sociolaboral de personas jóvenes en situación de exclusión, provenientes de los servicios, centros y programas dependientes de los servicios forales para la inclusión o provenientes de los servicios sociales de base de algún ayuntamiento u otros servicios sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que acrediten experiencia en la implementación de la estrategia joven de la dirección general de inclusión social, así como en otros programas mixtos de empleo-formación o en itinerarios de inserción laboral del programa operativo del Fondo Social Europeo.

Halaber, dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte Bizkaiko Lurralde Historikoko irabazi-asmorik gabeko elkarteen, fundazioen eta beste erakunde batzuen elkarteek, betiere erakundeetako batek aurreko paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen baditu.

Así como agrupaciones de asociaciones y fundaciones y otras entidades sin ánimo de lucro del Territorio Histórico de Bizkaia, en las que al menos una de las entidades cumpla los requisitos del apartado anterior.